


«Larritasun batek eraman nau nobela hau idaztera»



 Mikel Soto

 Uri Warren

Txalapartan *Mundua lo dagoen bitartean* eta *Joan* argitaratu ondoren, zerk eraman zaitu 50 idaztera?

Eman dezagun bidaia luze bat egin duzula eta sorterrira eramango zaituen trena hartzera zoazela, metroan adibidez. Eta eman dezagun, harantzean, uste baino geltoki gehiago dagoela eta, geltokitik geltokira larriago, zure trena hartzeko esperantza, hura galtzeko beldurra bilakatu zaitzula. Metroko tunel azkengabeetan barrena, billetea eskuetan, konturatu zara aukera bakarra trena berandutzea dela, eta orduan, apika, akaso, agian hartu ahal izango duzula. Baina geltokira iritsita, ekipajea gorabehera, lasterka abiatu zara, ezinka, eta zure nasara bihotza golkoan heldu zarenerako, hura hutsik topatu duzu... Antzeko sentazio batek har zaitzake 50eko adin ertain horretara iritsitakoan ere, eta ni halako larritasun batek eraman nau nobela hau idaztera.

Hala ere, zure aurreko lanetan bezala, zu behintzat ez zara geltokira bakarrik iritsi.

Arrazoi duzu: alde batera, pintura eta musika bezalako diziplinak pizgarri gertatzen zaizkit, emozionatu egiten naute, motibatu, hizpidea eman; eta, bestera, iruditzen zait elkar lana, fusioa, gaur egun oso bide interesgarria dela –ez bakarra, noski–, elkartze horrek zabaldu egiten duela obraren zentzua, eta, hartara, lana begietatik, belarrietatik, poroetatik hobeki sar daitekeela, sentitu egiten dela, alegia. Laburrago adieraztearren, nire ustez imajina batek ez du mila hitzek baino indar handiagoa eta, aldiz, doinu edota irudi batek lagundutako hitzak iradokizun ahalmen handiagoa izan dezake, zirrara estetiko handiagoa eragin dezake.

Hala bada, hor duzu *Joserra Senperena* berriro ere bidelagun.

Bai, harekin hamaika tokitara joanda nago, hamaika esperimentu egina,

konplize sentitzen dut. Eta hain zuzen ere esperientzia horiek aitzakia egokia iruditu zitzaizkidan, hiru lagunen harremanaren bitartez, gaur egungo errealitateari buruzko hausnarketa bat ere eskaintzeko: errezitaldiarako bidaiak, aurreko giroa, prestateta, geroko tristurak edo pozak, jenialtasunak eta mediokritateak, itxurakeriak, farandularen argi-ilunak... Errezitaldiko testua bera ere nobelan sartzea erabaki nuen, testua oihartzunez betetzea, ekintza gogoeta bide bilakatzea, eta hori guztia irakurleentzuleari eskaintzea.

Bagoi horretan, hala ere, bidaide gehiago ere badoaz.

Oraingo honetarako Mintxo pintore gasteiztarra gonbidatu nahi nuen. Aspaldiko ametsa zen. Haren lana oso gogoko dut, haren sujerentzia maila bikaina iruditzen zait. Baina esperimentuetan aurrera, nobelaren *leitmotiva* ura –edo ardoa...– ere badenez,

harparen beharrezana nuen, eta Oihane Igerabidek musika eta Maddi Oihenartek ahotsa jarriko diote nik idatzitako letra bati, eta gauza bera egingo dute Antton Valverde eta Rafa Berriok. Hala bada, azkenean, oparia izan, niretzat da inorentzat baino lehenago, nahiz eta prest nagoen plazer hori partekatzekeo...

tatik bertara. Nik izandako pribilegio horren partaide eta bidaide izatea. Errezitaldi hori zerbait irekia izango da, ez nobelari estu-estuki lotua, eta bai: gu bai guregana datozenak emozionatzea nahi genuke, zer sentitua, zer pentsa ematea.*

Esan daiteke liburua eszenara eramateko asmoarekin jaio dela?

Horixe baietz. Nobelak, hainbat pertsonaia fiktizioren bitartez, errezitaldi baten intrahistoria kontatzen du, hainbat peripezia eta hausnarketa eskaintzen, baina hori guztia jendeari zuzenean sentiarazi nahi nioke. Ber-

iraila

liburu gomendatua


Patxi Zubizarreta

50

Irudiak: **Mintxo**

Joseba pianista desafinatuak 50 urte. Nikolas idazle apatikoak eta Rafael pintore patetikoak errezitaldi baterako gonbita egin diote, berez, Panticosako bainuetxean ezusteko oparia izan beharko litzatekeena. Hala bada, *road-movie* gisako batean aurrea eta ur termalen inguruan gero, adin ertainaren talaiatik samur nahiz gordin, nor bere bizitzari eta elkarren bizitzari begiratuko diote: amodioak, traizioak, fantasmak... Alabaina, historiak txirikordatu eta korapilatu egingo zaizkie han, ospakizuna deskalabru bilakatu. Eta eragingo duten uholde unibertsal nahiz pertsonalean, baietz zipriztinak zureganaino ere iritsi.

Aldaketa abuztuaren 25a baino lehen



Joserra Senperena
Maddi Oihenart
Antton Valverde
Rafa Berrio
Oihane Igerabide

0506036 TXALAPARTA

ELEBERRIA

164 or.

Salneurria 19,80 €

Bazkideak 15,85 €

Luis Magan



Patxi Zubizarreta (Ordizia, 1964). Euskal Filologia ikasketak egin zituen eta harrezkero Gasteizen bizi da. Haur eta Gazte Literaturan ez ezik (*Eztia eta ozpina*, *Pantaleon badoa*) helduen literaturan ere arrakastaz idatzi ditu hainbat liburu (*Jeans-ak hozkailuan*, *Mundua lo dagoen bitartean*, *Joan*). Itzulpengintzan ere jarduna da, bereziki mundu arabiarreko lanak euskaratzen (Nagib Mahfuzen *Mila eta bat gauen gauak* edota Abdela Taiaren *Salbazioko armada*). Aspaldian, ikus-entzunezkoak eta literatura uztartzeko ahaleginean, zenbait ikuskizun edo *performance* bideratu ditu (*Zikoinaren hegaldia*, *Hamar mezu eta dei bat*).